

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

32/2019 Mozioa, urriaren 9koa, egungo krisi klimatikoari buruz eta Arabako Foru Aldundiak garatutako gainerako politika sektorialetan klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikak efektiboki jasotze aldera

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urriaren 9an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

32/2019 Mozioa, urriaren 9koa, egungo krisi klimatikoari buruz eta Arabako Foru Aldundiak garatutako gainerako politika sektorialetan klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politikak efektiboki jasotze aldera.

1. Arabako Batzar Nagusiek klima-larrialdiko egoera deklaritzen dute.
2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egin dezala Mugarri 2010-2020 Planaren azken ebaluazio bat.
3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote egin dezala eta jakitera eman dezala Arabako Lurralde Historikoko Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoaren ebaluazioa eta berrikuspen kualitatiboa, ekintzen klimaren aldaketari dagokionez izango duten eraginaren ikuspegitik, zertarako eta ekintza horiek zuzendu eta hala badagokio, birformulatzeko, neurriok Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legearen garapenera egokituz.
4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, KLIMA ARABA 2050 Estrategiaren barruan, diseinatu dezala Arabako Lurralde Historikoko plan eta aurrekontu guztietan zeharkako gobernantza-eredu bat, zeinak erronka klimatikoei ekingo baitie.
5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen klima-ekintzaren strategiari ekiteko neurri guztiak Arabako herritarrekin adostu daitezela gizartearen parte-hartze prozesuen bidez.
6. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, beste instituzioekin lankidetzan arituz eta KLIMA ARABA 2050 Estrategiaren barruan, Arabako herritarrak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko jarduera zehatzak jaso, planifikatu eta koordinatu daitezela.
7. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ekin diezaiela Arabako Lurralde Historikoko karbono-neutraltasuna 2050 baino lehen erdiestea ahalbidetzen duten plan eta politikei, eta ahalegin dadila data hori 2040ra aurreratzeko, betiere trantsizio hori Arabako Lurralde Historikoko sektore guztientzat ahalik eta bidezkoena izanik.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 9a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA